



## Aireko trafikoak beste gorakada bat izan du

Aireportuetatik igaro diren pertsonak  
Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura. Milakoak




Iturria: AENA.

Abuztura arte EAeko aireportuen bidez desplazatutako pertsonen kopurua %6,5 gehitu zen aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Zehatz-mehatz adierazita, bost milioi pertsona baino gehiago lekualdatu ziren, serie historiko osoan lortutako baliorik handiena.

## Autoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

EAeko turismoen matrikulazioa  
Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT).

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratu berri dituen datuen arabera, **aurtengo lehen zortzi hilabeteetan 18.362 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %4,4 gehiago.** Hala ere, gorakada hori gorabehera, balioak pandemiaren aurreko urteetan lortutakoak baino nabarmen txikiagoak dira.



## EAEko merkataritzaren salmentak %0,2 gehitu ziren

Merkataritza indizea  
Urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

EAEko merkataritzaren sektoreko salmentak %0,2 gehitu ziren 2024ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Era berean, enpleguak ere birlakaera positiboa izan zuen, %1,6ko hazkunde tasa jaso zuelako.

## Hoteletako gaualdien kopurua %1,6 hazi zen

Hoteletako gaualdiak  
Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak



Iturria: Eustat.

Abuztuan, EAEko hotel establezimenduetan igarotako gaualdien kopurua %1,6 handitu zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, 900.000 gaualdi baino gehiago zenbatu ziren, serie historiko osoan inoiz lortu den baliorik handiena.